2017/00000710 **DEKRETUA**

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

**DEKRETUA:** Hernanin, 2017/05/02,

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko martxoaren 27an onartu zituen udalak antolatzen dituen udaleku irekietarako begiraleak kontratatzeko lan-poltsaren oinarriak onartzea.

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau

**EBATZI DUT:**

**Bakarra.**- Ondoko pertsonak izendatzea oposizioko Epaimahai Kalifikatzaileko kide:

Epaimahaiburua:

.- Malores Etxeberria Arrese, Hernaniko Udaleko Euskarako teknikaria.

Epaimahaikideak:

.- Agurtzane Aizpuru Borda, Hernaniko Udaleko Kulturako teknikaria.

.- Beatriz Mena Díez, Hernaniko Udaleko Gazteria teknikaria.

Idazkaria

.- Marian Apezetxea Loiarte, Euskara zerbitzuko administraria.

Luis Intxauspe Arozamena alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordeanaizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea . Sinatua: udal idazkariordea

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berariazko egintza horren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu(e)la **Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko** epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertzeko errekurtsoa** aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berariazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita **hilabeteko** epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulu eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki iritzitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

HERNANIKO UD
udal idazkariordea
2017/05/02
Hernaniko Udala

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus